



**Arartekoaren 2015R-671-15 Ebazpena, 2015eko irailaren 29koa. Horren bidez, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuetako Sailari gomendatu zaio arreta egokia eman diezaiela Bideberria egoitza harreraren hartutako adin txikikoen beharriari, emantzipaziorako eta bizitza autonomorako prestakuntzara argi bideratuta, berma dezala gizarte babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako eta nerabeentzako egoitza harrerarako baliabideak arautu dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuan aztertutako betekizunak, langileei buruzkoak, betetzen direla, eta zaindu eta babestu ditzala hartutako adin txikikoak, ahal den neurrian, baliabideetako langileen lan gatazketatik.**

### Aurrekariak

#### **1. *Jarduera markoa: babesgabetasun egoeran dauden haurrei eta nerabeei arreta emateko baliabideetarako bisita plana.***

Zaurgarritasun handiko egoeran dauden haurren sektoreei lehentasunezko arreta emateak, horixe baita Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren lan ildoetako bat, hainbat tresnaren bidez jorratzen den ezagutza eskatzen du, hau da, errealitate horien ezagutza hurbila behar du. Programetarako, zerbitzuetarako eta baliabideetarako ikuskapen-bisitak egitea da tresna horietako bat. Babesgabe dauden haurrentzako gizarte zerbitzuen eremuan, Euskadiko egoitza baliabideen sareko hainbat programetara bisitak egiten dihardu bulego horrek urtez urte, babesgabetasun egoeran dauden haurrei eta nerabeei ematen zaien arreta ulertzeko eta horren kalitatea egiaztatzeko asmoz, eta, azken batean, dauzkaten eskubideak egoki erabiltzen direla egiaztatzeko xedez.

2015erako aurreikusitako bisita planean, premiazko harrera programaren gainean jarri da interesa, eta, zehazkiago, programa hori nerabeekin burutzen duten egoitza harreraren gainean. Hala, ez da aurreikusi premiazko harrerarako gordetako lekua duten harrera pisuetara bisitarik egitea, ez eta Arabako 12 urtetik beherako haurrentzako premiazko harrera zentrorra bisita egitea ere. Baliabide horiek<sup>1</sup> arautzeko dekretuan dago aurreikusita harrera pisuen aipatu formula, eta Bizkaian eta Gipuzkoan dago antolatuta. Honakoak dira planean txertatutako zentroak:

- Bideberria, Arabako lurraldean lagunduta ez dauden atzerritar adingabeak lehen aldiz hartzeko zentroa.
- Ibaia, 12tik 18 urtera bitarteko nerabeak, familia erreferenteak dituztenak, premiaz hartzeko zentroa, Arabako lurraldean hori ere.

---

<sup>1</sup> Gizarte babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako eta nerabeentzako egoitza harrera baliabideak arautu dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua. 7.4. artikulua: 4.– “Premiazko harrera-programa berariazko eta bereziki helburu horretara bideratutako egoitza-harrerako baliabide batean ez ezik Lurralde Historiko bakoitzeko egoitza-sare osoan premiazko berariazko plazak prestatuta ere aplikatu ahal izango da.()”



- Zornotza, Bizkaiko lurraldean lagunduta ez dauden atzerritar adingabeak lehen aldiz hartzeko zentroa.
- Uba, Gipuzkoako lurraldean lagunduta ez dauden atzerritar adingabeak lehen aldiz hartzeko zentroa.

## 2. *Bisitan behatutakotik eta jasotakotik.*

Apirilaren 22an eta maiatzaren 13an, aurretiko jakinarazpenik egin gabe egin zuten bisita Haur eta Nerabeentzako Bulegoko langileek *Bideberria Zentrorra*. Instalazioak bisitatu ziren, dokumentazioa bildu zen eta elkarrizketak eduki ziren zentroko arduradunekin, lantaldeko beste kide batzuekin eta neska-mutil egoiliar batzuekin. Arabako Gizarte Ongizateko Foru Institutuaren Adingabeentzako eta Familientzako Zerbitzuko arduradunekin osatu eta alderatu zen informazio hori.

Molinuevoko egungo instalazioetan zabaldu zituen zentroak atek 2009ko ekainean, baina *Zabaltzen* zentroaren ondorengoa da lagunduta ez dauden adin txikiko atzerritarrak premia hartzeko programa. Urgatzi enpresak kudeatzen du 2014ko apiriletik, horrek hartu baitzion erreleboa Ixuri Elkarteari. Langileak, ordea, subrogatuta daude. Hortaz, egungo taldea, zuzendaria salbu, berbera da.

Lagunduta ez dauden adin txikiko atzerritarrak hartzen ditu zentroak berariaz. Arabako lurraldean, babesgabetasun egoeran dauden eta familia erreferenteak dituzten adin txikikoek beste baliabide batzuetara jotzen dute. Zentroan bi programa lantzen dira: 1) premiazko harrera programa, Bideberria 1 izendatutako moduluan dago eta 15 leku dauzka eskuragarri; 2) emantzipaziorako prestatzeko programa, Bideberria 2 moduluan dago eta beste 15 leku dauzka. Dena dela, egungo enpresak erabiltzen duen metodologian "faseei" buruz hitz egiten dute *"erabiltzaileen garapen prozesuan dauden une ezberdinez"* aritzeko, eta *"bete beharreko xedeak eta garatu beharreko ohiturak"* dira horien ezaugarri<sup>2</sup>. Neska-mutilek euren Banakako Heziketa Proiektuan (BHPn) azaldutako xedeak betez egiten dute aurrera, eta hurrengo faseetara igarotzen dira. Terminologia horretan, 1. fasean, eta, ñabardura batzuekin, 2. fasean lortu beharreko xedeak hurbilago egongo lirarteke harrera eta balorazio prozesutik, eta 3. eta 4. faseak emantzipaziorako prestatzeko programatik. Edonola ere, honela daude zehaztuta teorikoki, indarrean dagoen esku hartzeko ereduan: Bideberria 1, 1. eta 2. fasean dauden neska-mutilak; eta Bideberria 2, 3. eta 4. fasean dauden neska-mutilak.

Bisitan, 8 neska-mutil zeuden harreran hartuta Bideberria 1ean (bi ihes eginda egon arren), eta 13 neska-mutil Bideberria 2n.

**Eraikinaren** bi solairutan bereizita lantzen dira programak: Bideberria 1, hau da, premiazko harrera, kanpotik sarbidea duen solairuan; Bideberria 2, hau da,

---

<sup>2</sup> Bisitan zehar zentroari eskatutako dokumentaziotik jaso.



emantzipaziorako prestakuntza, azpiko solairuan. Bi moduluek dauzkate sukaldea, jantokia, logelak, komunak, egongela eta hezitzaileen gela. Bideberria 1ean, baliabideko zuzendariaren bulegoa ere badago.

Logelak taldekakoak dira, eta ohatzeak eta metalezko armairuak dauzkate (aldageletan erabiltzen diren motakoak). Logela guztien artean, horma bakarrean ikus daiteke espazioaren pertsonalizazioaren hondarren bat. Garbi daude, eta nahiko txukunak, kontuan hartuta nerabeen logelak direla.

Komunek eta dutxek intimitaterako aukera ematen dute, eta garbi daude.

Sukaldeak noizean behin erabiltzen dira, neska-mutilekin errezeta errazen bat egiteko. Catering bati kontratatu zaio janaria, eta bai elkarrizketatutako neska-mutilek, bai zentroko langileek adierazi dute ez daudela pozik.

Hezitzaile-taldearen bulegoa, zeinetara neska-mutilak ezin daitezkeen sartu langileen baimenik gabe, beste zentro batzuen antzera dago antolatuta: langileei oharra uzteko aldea, dokumentazioa, lan-txandak... Espazio horretan egiten dira, baita ere, banakako tutoretzak neska-mutilekin.

Neska-mutilak beraiek arduratzen dira zentroko eguneroko **garbiketaz**. Zentroa garbi dago bisitaren egunean. Instalazioak mantentzeko zailtasunak azaldu dituzte, pertsianak, sarrailak eta abar bereziki, izan ere, konpontzen direnean, gutxi irauten dute egoera onean. Gainera, badirudi asko tardatzen dutela konponketak egiten.

Deigarria da zentro barruan zein kanpoan **jarduerarik** ez egotea. Otorduak, garbiketa orduak eta gaztelaniako eskolek zehazten dute egunaren programazioa. Eskola horiek zentroan bertan (ordubete egunean) eta Herri Kultura Zentroan (bi ordu egunean, bi taldetan) ematen dituzte. Gutxi arte, Ostalaritza Eskolak ematen zuen lanbide trebakuntza eskaini ahal izan zaie bi programetako neska-mutilei, baina badirudi xahutu egin direla ekimena errepikatzeko aukerak. Ostiraletako asanbladak osatzen du asteroko programazioa. Bertan, informazioa ematen zaio taldeari, arauak gogorarazten dira, iradokizunak jasotzen dira era abar, bai eta aisialdirako jardura batzuk ere.

Neska-mutil guztiek dute erreferentziako tutorea, eta asteroko **tutoretzak** egiten dituzte. Elkarrizketatutako neska-mutilek balioa ematen diote irudi horri, eta laguntza eskatzeko erreferentzetzat daukate, arazorik izanez gero. Ikuskatutako Banakako Heziketa Proiektuak, ordea, txiroegiak dira: itemez gainezka daude, eta oso baxua da eremu ezberdinetan egindako esku-hartzearen eta neska-mutilen garapenaren segimenduaren berri emateko oharren kalitatea.

Tutorearen irudiaz gain, kasurako koordinatzailearen irudia ere badago zentroan. Gizarte Ongizaterako Foru Institutuko Adin txikiko eta Familia Alorreko langilea da bera, eta oso harreman arina dauka zentroarekin; izan ere,





Bideberrian dauden neska-mutil guztien kasuak kudeatzen ditu, zentroarentzat aipatu alorreko erreferentzia izateaz gain.

Telefonoz burutzen da neska-mutilek **familiekin** duten **harremana**. Hilean, deitzeko 20' daukate, eta nahi duten bezala banatu ditzakete, tutorearekin aurretik adostuta. Bideberria 1eko harigabetik egiten dituzte deiak (baita Bideberria 2koek ere), eta hurbil izaten du hezitzaile bat, telefono gailua egoki erabiltzen dela ziurtatzeko. Euren ustez, bermatuta dago pribatutasuna, neska-mutilek arabieraz hitz egiten dutelako euren familiekin.

Neska-mutil bakoitza dagoen fasearen arabera zehazten dira **aisialdirako** denborak, bai eta aisialdi hori modu autonomoan edo lagunduta egingo den ere. Faseaz gain, adinaren arabera ere modulutzen da erabilera partikularrerako -paga- eskuragarri dagoen dirua.

**Beste zerbitzu batzuekiko, komunitate agenteekiko** eta oro har komunitatearekiko **harremanari** dagokionez:

- Ez dago neska-mutilak zentroan errolatzeko arazorik,
- OTI osasun-txartela azkartasunez kudeatzen dute errolda-agiriarekin, eta ona da Osakidetzarekin duten harremana. Osasun mentalarri dagokionez, adierazi dute neska-mutil batzuek osasun mentaleko baliabideetara jotzeko dituzten eragozpenetatik datozela zailtasun nagusiak, hala nola, hizkuntzaren oztopoak; izan ere, foru zerbitzuak ematen duen interpretearekin ez dira horiek konpontzen, osasun mentalean egin behar diren balorazioen ezaugarriak direla-eta.
- Legezko emantzipaziorako data hurbildu ahala koordinatzen dira Foru Aldundiaren beraren gizarteratzeko arloarekin eta bazterketa egoeran dauden pertsonen arreta ematen dien udalaren arloarekin.
- Polizia askotan bertaratzen da zentrori, bai aurkitu dituzten neska-mutilak bertara laguntzeko zereginean, zeinak bertan geratuko diren, bai zentrotik gertaera larri edo ez hain larriengatik egindako deiei erantzuteko.
- Elkarrizketatutako neska-mutilen iritziz, gertakari horietako batzuk ez dira komunitatearekiko konfiantzazko harremanak errazten ari, komunikabideek areagotu edo zabaldu egin baitituzte horiek.

Lagunduta ez dauden adin txikiko atzerritarrak **hartzeko protokoloari** dagokionez, neska-mutilak edo poliziak (Udaltzaingoak, Ertzaintzak) lagunduta iristen direla, edo zentroan bertan agertzen direla jakinarazi digute. Daukaten dokumentazioarekin joaten dira guztiak fiskaltzara. Bertan, elkarrizketa egiten diete, eta adina zehazteko probak egitea erator daiteke hortik. Zentroan ez dute inolako baloraziorik egiten gainean daramaten dokumentazioari buruz.

Neska-mutilak **dokumentatzeko behar diren izapide guztiak** abiarazten dira premiazko harrera programan. Hezitzaile-taldeak berak kudeatzen du kontu hori, are neska-mutilak kontsulatuera eta enbaxadetara lagundu ere, Madrilera, Bartzelonara edo Bilbora, pasaporte izapidetzeko.





Nolanahi ere, **lantaldearen** egoerarekin dauka zerikusia bisitako elementu nabarmenenak, lan gatazka larrian baitago. Erakunde honek elkarrizketatu dituen pertsona guztiek hasi dute euren kontakizuna lantaldean dagoen gatazkari buruz hitz egiten. Hala ere, ikuspuntuek ez dute bat egiten, batzuentzat ondorioak direnak arrazoiak direlako besteentzat, eta alderantziz. Zentroan hartutako neska-mutilei emandako arretan eragina izan duenez gatazka horrek, xehetasunez aipatuko dugu hurrengo atalean:

### Gogoetak

#### **1. Lan gatazkak eragina izan du zentroaren dinamikan eta hartutako neska-mutilen beharren arretan.**

Esan dugun bezala, langile taldearen zati bat lan gatazkan dago enpresa kudeatzailearekin. Elkarrizketatutako pertsona guztien kontakizunean ageri den argudio errepikatua izan da, eta esku-hartzearen eremu eta une guztiari eragin die. Hortik eratorritako ondorioak jorratzen saiatuko gara hemen, izan ere, esan dugun bezala, auzitegien mende daude langileen lan eskubideen gaineko desakordioen egitate-xede ezberdinak, eta, hortaz, guk horren gainean erabakirik hartzea galarazten du horrek.

2014ko apirilean sortu zen lan gatazka, foru administrazioak enpresa kudeatzailea aldatzea erabaki zuen unean; izan ere, urtebeteko jarraipena egin ostean, aurreko kudeatzaileek kontratua bete ez zutela egiaztatu zuten. Hala ere, esku-hartze sozialeko sektore-hitzarmenean aztertutako subrogazio betebeharrak lantaldean mantentzen ditu langileak, aurreko entitate kudeatzaileko arduradunak barne.

Arazoa ulertzeko, halere, adierazi beharra dago foru erakundeak, zerbitzuaren arduraduna denak, denbora daramala esku-hartzeko eremuan aldaketa bat sartzeko ahaleginean. Aurreko kudeatzaileek ez zioten saiakera horri erantzun. 2009an eta 2010ean zentrori egin genituen bisitetan ezagutu ahal izan genuen aurreko ereduak. Eredu horretan, "hezitzaileak" garatzen zituen heziketa atazak eta "zaintzaileak" burutzen zituen segurtasun atazak. Horietako baten hitzetan, *"zaintzaileak kaleko arropaz janzen ziren, eta hezitzaile-taldean sartuta zeuden, baina segurtasunean zentratzen ziren, segurtasun pribatua baino merkeagoa baitzen hori. Formula horrek funtzionatu egiten zuen eta ez zuen arazorik sortzen: neska-mutilek mugak ezagutzen zituzten eta zigorrak onartzen zituzten, muga horiek bete ezean"*<sup>3</sup>. Ondorioz, zaintzaile horien prestakuntza ez zegoen hezkuntza eremuarekin lotuta, eta irudiari berari

---

<sup>3</sup> 2010ean erakunde honi aurkeztutako kexa askoren xede izan zen langile horien jardura. Haur eta Nerabeentzako Bulegoak Eusko Legebiltzararentzat urte hartan egin zuen [urteko txostenean](#) jaso zen bezala, *"heziketa tratua kexatzen ziren Foru Aldundiaren egoitzetan artatutako adin txikiko atzerritarrak: besteren artean, jasotzen zituzten zigorrak eta eurak eusteko jardura batzuek kexu ziren"*.



dagokionez, ez da 131/2008 Dekretuan ageri. Baliabide horiek arautzen dituen eta 2008tik indarrean dagoen dekretua da hori.

Sartu nahi den esku-hartzeko ereduak, Urgatzik 2014ko apirilean zentrora eramanez, alegia, ez du segurtasun-langilerik behar, eta jarduera ororen heziketa gako indartzen du: arreta neska-mutilen beharrezan eta garapenari, esku-hartze osoagoa, goian aipatutako heziketa faseak... Segurtasunaz arduratzen ziren 17 langileren (ez guztien) kaleratzea ekarri zuen horrek. Errekurritu egin dituzte kaleratze horiek, eta egoitza judizialean daude. Lantaldean geratu ziren zaintzaileei "hezitzaile laguntzaile" irudirako trantsizioa egitea proposatu zaie berriki, 131/2008 Dekretuan jasota baitago hori, langile horiei esleitutako funtzioak onartuz. Polemika eragin du proposamen horrek ere, hezitzaileen gelan eskegitako karteletan ikus zitekeen bezala: *"Ez gara laguntzaileak, zaintzaileak gara"*.

Enpresa kudeatzailea eta esku-hartzeko ereduak aldatu zirenetik urtebete baino gehiago igarota, neke zeinu argiak dituen hezitzaile-taldea da erakunde honek ikusi duen errealitatea, eta horren erakusgarri dira datu hauek:

- Bisitaren unean, bajaran zegoen lantalde erdia baino gehiago.
- Langileen errotazio handia: azken bi hile eta erdian, ordezkapenak egiteko 100 kontratu baino gehiago egin dira (ez ulertu 100 pertsona), presa handiz batzuk, azken unean ematen baita lanera ez joatea eragin duen egoeraren berri.
- Bi elementu horiekin lotuta, gutxi kohesionatutako taldea, ibilbide gutxikoa elkarrekin lan eginez eta esperientzia gutxiko langileen ehuneko altua. Ez dute gehiegi ezagutzen ezaugarri horiek dituzten zentroetako lan praktika, eta eskarmentu handiko langileak ez dira asko egoten txandetako taldeetan, eta informazioa eta ezagutza, hau da, "egiten jakitea" transmititzea zailtzen du horrek.
- Aurreko eredu eraginkorragoa zelako iritzia iraunkortasuna<sup>4</sup>, are berau ezagutu ez zuten hezitzaileen artean ere. Gauetan langileen ratio handiagoak eta "eusteko" langile gehiago egoteko aldarrikapena, argudiatzen dutenez, artatu beharreko taldea gatazkatsua delako.
- Ezarri gabe dago metodologia-proposamen berria. Ez dago ekintzen programaziorik.
- Neska-mutilen arteko gertaerak eta gatazkak ugaritu egin dira, baita neska-mutilen eta hezitzaileen artekoak ere.

1.1. Erakunde honen iritziz, ezarri nahi den **esku-hartzeko ereduak** bat egiten du aipatu dugun dekretu arautzailean ezarrita dagoenarekin, eta, batez ere, egokiagoa da babesgabe egoeran dauden haurrentzako gizarte zerbitzuen xederako: neska-mutil horiei laguntzea, erreferentziazko heziketa irudietatik hasita euren garapenean, euren jarduera pertsonal eta sozial autonomoa

---

<sup>4</sup> "Zaintzaileen irudia baliotsua zen, izan ere, fisikoki eusteko eta miaketak egiteko funtzioa zuten, eta, horrela, hezitzaileek euren lana egin zezaketan" (hezitzailea)



gauzatzea ahalbidetuko dien autonomia maila eskuratu arte. Esku-hartzeko zentroaren erdigunean daude, beraz, neska-mutilak eta euren beharrianak, eta euren eskubide guztien erabilera eraginkorra da printzipio orientatzailea.

Haurren eta nerabegaroko psikologia eremuan egindako ikerketa askok aipatu dituzte egunerokotasuneko denbora egituratzeak (errutinak ezartzeak) neska-mutilen egitura psikologikorako dituen onurak. Egitate horren berri eman dute erakunde honek ezagututako beste egoitza batzuetako esperientziek, bai eta neska-mutilengan poza eragiten dutela ere, lanpetuta daudela sentitzen baitute, baliagarriak direla, arretaren erdigune, eta euren gaineko kezka duten pertsona batzuentzako baliotsuak direla. Hortaz, funtsezkoa da eguneroko jardueren plana egitea, neska-mutilen beharrian eta itxaropen (irrika) nagusiei erantzungo diena, eta euren energia ekintza eraikitzaile eta positiboetara bideratzea ahalbidetuko diena, horrela, poz maila nahikoa eraginez. Emantzipatzeko unean euren kabuz aritzeko baldintzak hobetuko dituzten edota zuzenean lanerako prestatuko dituen ekintzak, trebakuntza eduki argiak dituztenak (zentro barruan ala kanpoan, zirkunstantziek ahalbidetzen dutenaren arabera); kultura, aisialdi eta kirol ekintzak; zentroa hobetzeko eta mantentzeko tailerrak edo jarduerak eta abar. Bada, horiek guztiek osatu beharko lukete jarduera programa anitz eta erakargarria.

Jarduera horiek dira, nahitasun eta hurbiltasun kliman eginez gero, esku-hartzeko nuklearra; hau da, zerbitzuaren prestazio bakana -harreman prestazioa- garatzen den testuingurua, "agertokia", markoa: *heziketa* jarduera, zeinaren tresna nagusia neska-mutil bakoitzaren eta hezitzailearen artean ezartzen den heziketa harremana den, bigarrenak lehenengoaren garapen prozesuan laguntzen baitu.

Banakako Heziketa Proiektuak oso tresna erabilgarria dira laguntza horretan, oinarritzkoak dira lortu beharreko xedeak ezartzeko, aurrerapenak baloratzeko, informazioa zentroko edo lankidetzan ibiltzeko beste zerbitzu batzuetako edo hartutako pertsonaren hurrengo zentroko langileekin elkarbanatzeko. Aurrekarietan adierazi dugun bezala, ordea, Bideberrian ezagutu ahal izan ditugun BHPetan jasotako informazioarekin (oso pobretzat jo baitugu) oso zaila da pentsatzea fasean aurrera egiteko (edo atzera egiteko) erabakiak har daitezkeenik. Zaila da, halaber, zenbait langilek egindako esku-hartzearen oinarri gisa irudikatzea, bereziki, 15 lan-txanda ezberdin dituen baliabidea izanda. Bestetik, zaila da, baita ere, hartutako neska-mutilaren balizko hurrengo baliabideko langileentzako behar besteko informazio gisa irudikatzea ere.

1.2. Prestazio nagusizat heziketa duen eta, esan dugun bezala, tresna nagusizat heziketa harremana duen zerbitzu batean berebiziko garrantzia dauka **gaitutako hezitzaile-talde egonkor eta kohesionatua** edukitzeak.

Arauz ezarritako langileen ratioa betetzen ez dela izan da elkarrizketatutako hezitzaileen erreklamazioetako bat. Araudiaren arabera, hezitzaile bat egon beharko litzateke hiru nerabeko, premiazko harrera programan (Bideberri 1ean),





eta hezitzaile bat lau nerabeko, emantzipaziorako prestatzeko programan (Bideberria 2n). Horri dagokionez, esan beharra dago, hezitzaileen gelan ikusgarri dagoen lan-karteldegia azterketari eta bisitan *in situ* behatutakoari kasu eginez, erakunde honek ez zuela langile faltarik hauteman bidezko proportzioan.

Gaueko txandari dagokionean, hots, Bideberria 1ean bi hezitzailek eta Bideberria 2n hezitzaile batek artatutako uneari dagokionean (larrialdietarako telefono bidezko zaintza zerbitzuaz gain), komeni da gogoraraztea 131/2008 Dekretuak 109. artikuluko 1. puntuan ezarri duela, hau da, *egoitza harreretan, emantzipaziorako prestatzeko zentroetan eta harrera pisuetan aplikatu daitezkeen zuzendaritza eta heziketa langileen gutxieneko ratioei* buruzkoa den puntuan, b) idatz-zatian, hezitzaile-taldeari buruzkoan, gutxieneko hurrengo ratioak bete beharko direla gaez: 1) premiazko harrera programan, hau da, Bideberria 1ean, hezitzaile bat eta hezitzaile laguntzaile bat artatutako 12 neska-mutileko; 2) emantzipaziorako prestatzeko programan, hau da, Bideberria 2n, hezitzaile laguntzaile bat artatutako 12 neska-mutileko, premiazko egoeretan esku hartzeko hezitzaile bat edo teknikari bat eskuragarri egongo dela bermatzeaz gain. Gogoratzen badugu Bideberria 1ean 6 neska-mutil zeudela hartuta (gehi ihes egindako 2), eta Bideberria 2n 13 neska-mutil zeudela, ezin dezakegu okertzat jo txanda horretako langile kopurua.

Heziketa taldeko langileen prestakuntzari dagokionez, egiaztatu egin da guztiek ez daukatela uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuak 106. artikuluan <sup>5</sup> eskatutakoa. Lantaldeko hezitzaileen kasuan, Zabaltzen egoitza harrera baliabidetik etorri dira batzuk (subrogazio jarraituengatik), eta aipatu dekretua indarrean sartu aurretik zeuden egoitza harreraren sarean kontratatuta; hortaz, aplikagarria zaie zortzigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa<sup>6</sup> eta ezin zaie lehen adierazitako titulazioa eskatu. Ordezkoak kontratatzeko, Gizarte Langintzako diplomatura edo gradua ari dira jada eskatzen.

Zaintzaile kategorian kontratatutako langileekin gertatzen dira ez-betetze adierazgarrienak, izan ere, jada adierazi den bezala, defentsa pertsonalarekin eta eustearrekin zerikusia duen trebakuntza dute, euren eginbeharra xede horretarako formulatzen zen heinean. Hala ere, Foru Aldundiko Haurrentzako Zerbitzuak baloratu behar du dekretu arautzaileak aukeratzat jo duen lan-profil hori, jarrera arazo larriak dituzten nerabeak laguntzeko programa berezitu

---

<sup>5</sup> 106. artikulua:

2.- Hezkuntza-taldea hezitzaileek eta langile auxiliarrek osatuko dute, eta honako prestakuntza hau izango dute: 20590 EHAA - 2008ko abuztuak 8, ostirala N.º 150 ZK. BOPV - viernes 8 de agosto de 2008 a) Hezitzaileek gizarte-hezkuntzako diplomatura, edo, hori izan ezean, hezkuntza-zientzietako edo gizarte-zientzietako diplomatura edo lizentziatura bat eduki behar izango dute, betiere Gizarte Hezitzaileen Elkargoaren gaikuntza lortu badute. b) Hezkuntza-langile auxiliarrek gizarteratze-teknikariaren goi-mailako prestakuntza profesionala izango dute

<sup>6</sup> Zortzigarrena.-

"Hezkuntza-langileen titulazioa. 106. artikulua 2. idatz-zatian aurreikusitakoaren ondorioetarako, hezkuntza-langileei -hezitzaileei nahiz hezkuntza-langile auxiliarrei- eskatzen dizkieten titulazioak haurrak eta nerabeak babesteko sarean beren jardura profesionala gauzatzen Dekretu hau indarrean sartu ondoren hasten diren profesionaleri soilik eskatu ahal izango zaie."





trinkorako. Bideberriako moduluetako bat bera ere ez dabil programa hori lantzen. Gauzak horrela, erakunde honen ustean, premiazkoa da lehenbailehen argitu dadila langile horien funtzioa; beti ere, *hezitzaileak* izan beharko dira, eta, ondorioz, eremu horretako prestakuntza beharko dute.

Laburtuz, esku-hartzeko hezitzaile-taldea solidoa izateak duen garrantzia kontuan hartuta, garrantzitsutzat jo dugu dekretuan azaldutako lan-profilek (hezitzaileek eta hezitzaile laguntzaileek) osatutako heziketa-taldea sortzeko prozesuak areagotzea, dekretuan horietako bakoitzari esleitutako funtzioak bete ditzatela, eta eskatutako titulazioek egiaztatutako gaikuntzak edukitzea.

## 2. Programen nahastea

Aurrekarietan esan dugun bezala, bi programa garatzen dira Bideberria zentroan: 1) Bideberria 1, premiazko harrera programa edo enpresa kudeatzaileak aurkeztutako metodologiako 1. eta 2. faseak; Bideberria 2, emantzipaziorako prestatzeko programa edo aipatu metodologiako 3. eta 4. faseak.

Terminologia horretan, 1. fasean, eta, ñabardura batzuekin, 2. fasean lortu beharreko xedeak hurbilago egongo lirarteke harrera eta balorazio prozesutik, eta 3. eta 4. faseak emantzipaziorako prestatzeko programatik. Edonola ere, honela daude zehaztuta teorikoki, indarrean dagoen esku hartzeko ereduan: Bideberria 1, 1. eta 2. fasean dauden neska-mutilak; eta Bideberria 2, 3. eta 4. fasean dauden neska-mutilak. Heziketa-taldeen independenteki funtzionatzen dute programetako bakoitzerako, baina bereizketa, ordea, ez dirudi oso argi dagoenik, elkarriketatuen adierazpenei erreparatuz gero.

Edonola ere, etengabe aipatu dugun uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuan argi zehaztuta dago bi programen xedea. Egoitzan hartzeko programen tipologia zehazten duen 4. artikulua zera dio:

*“a) Premiazko harrera-programa. Beren egoerak berehala esku-hartzea eskatzen duten haurrentzat eta nerabeentzat, edozein izanik ere beren jatorria, izango da; beren esparruan, beren egoera pertsonala, familia- eta gizarte-arlokoa aztertu eta balioetsiko da atzemandako premietarako egokiena den babes-neurria definitzeko. Programa horretako egonaldia 60 egunetik beherakoa izango da, ahal bada*

*c) Emantzipaziorako prestatzeko programa. 14 urtetik gorako nerabeak, edozein izanik ere beren jatorria, prestatuko ditu bizitza independenterako, nerabe horiek egoitza-harrerako baliabidetik ateratzen direnean familia-nukleo batean txertatzea aurreikusten ez den kasuetan; bizikidetzatestu inguru bat emango zaie, bizitza sozialean gizarteratzea erraztuko dien hezkuntza-arloko, prestakuntza-arloko eta/edo orientaziorako eta laneratzeko laguntza emanez. Adingabearen ezaugarriek zaintza oinarrizko programaren edo programa espezializatu baten esparruan ematea gomendatzen duten kasuak salbuetsita, emantzipaziorako prestatzeko programa horrek*





*programa egokia aukeratuko du babes-sarean oso adin berantiarrean sartu diren nerabeei ez ezik zentrotik ateratzen direnean jatorrizko familia-nukleoan gizarteratzea aurreikusten ez den nerabeei ere laguntzeko.”*

Zentroko Zuzendaritzak emandako dokumentua, zeinetan fase ezberdinak azaldu diren, horien ezaugarriak, xedeak eta aurreikusitako iraupena barne, dekretuaren aipatu paragrafoen arabera aztertuta ondorioztatu dugu 1. fase izendatutakoak bakarrik erantzuten diola argi premiazko harrera programaren xedeei. Bertan, oinarritzko beharrak berehala estaltzea izan behar da lehentasuna, bai eta balorazioa egitea ere –neska-mutilarengandik jasotako informazioaren eta zentroan duen jarrera behatzearen bidez-, programa egokienera bideratzeko gero. Gogoan izanda Araban Bideberria 2n bakarrik garatzen dela lagunduta ez dauden adin txikiko atzerritarrak emantzipatzeko prestatzeko programa bakarra, eta salbuespena direla oinarritzko programara edo programa berezituetera bideratzen diren nerabeen kasuak, erakunde honen iritziz, zentzuzkoa litzateke behaketarako eta baloraziorako 1. fasea amaitutakoan emantzipaziorako prestatzeko programako subjektutzat jotzea horiek. Egiazki, baliabidea emantzipaziorako prestatzeko zentrotzat jotzeaz ari gara hitz egiten berez, premiazko harrerarako leku kopuru jakina izango lukeena, beharrianen arabera moldagarriak horiek.

Bi moduluetakoko programak argiago eta ildo horretan definitzeak lagundu egingo luke bisitan zehar ikusitako beste egitate batzuk arintzen, gure kezka piztu baitzuten:

- Emantzipaziorako prestatzeko programari bideratutako moduluan leku eskuragarriak ez egoteak (Bideberria 2, beheko solairua) modulu horrekin bat datozen fase aurreratuagoetarako garapena baldintzatu lezake (une batzuetan egin baitzuen). Horri dagokionez, gure ustez, norberaren garapenari lotutako xede eta ardura berriak ezin daitezke solairu bateko edo besteko leku eskuragarrien mende egon, batez ere, eraikina elkarbanatzeak ematen dituen aukerekin.
- Betebeharrak modu larrian urratzeagatik zigorrak fasean atzera egitea ekar lezake, are 1. fasean ere (jada eskuratutako aisialdi eta diru "pribilegioak" kentzean dakarrenarekin). Gure irudiko, zigorra betetze hutsak ezin dezake 1. fasera atzera egitea ekarri, zeinetan pertsona baloratzea den xedea, ez bada, hain zuzen ere, zigorra eragin zuten egitateetatik ondorioztatzen harreran dagoen pertsonarentzako programa berri bat baloratzea komeni dela (espezialista bat, adibidez).

Faseetan aurrera egitearekin lotura duen azken elementuak administrazio-dokumentazioa izapidetzearekin dauka zerikusia. Egun zentroan dagoen neska-mutiletak batek 9 hile daramatzala jakinarazi zaigu, eta ez zaizkiola ez pasaporte, ez egoitza baimena izapidetu. Bestetik, egonaldia amaitu zaien eta dokumentatu ez diren pertsonen kasuen berri ere eman zaigu. Zalantza, halere, honakoa da: hori horrela ote den pasaporte izapidetzeko beharrezkoa den





jatorrizko herrialdeko dokumentazioa garaiz lortu ez delako, elkarrizketatutako neska-mutil batzuek onartu duten bezala, ala dokumentazioa lortzeko kudeaketak BHPren xedeetan aurrera egitearen mendekoak direlako gertatzen ote den. Arduradunek ukatu egin dute nahita atzeratu izana, baina onartu egin dute dokumentazioaren izapideak neska-mutilengan duen alderdi "mugitzailea". Dena delakoa izanda ere, adierazi beharra daukagu dokumentazioaren kudeaketa inolaz ere ezin daitekeela egon atzerritarrentzako araudian azaldutakoak ez diren elementuen mende, eta bidezko prestasunez izapidetu behar dela, justifikatu gabeko atzerapenik gabe, eta, noski, nahita egindako atzerapenik gabe.

### 3. Eskolatzea, trebakuntza eta lanean hastea.

Esaten ari ginen bezala, *"heziketa, prestakuntza edota lanean hasteko laguntza ematen dituen bizikidetza testuingurua"* eman behar die emantzipazioarako prestatzeko programak bertan parte hartzen duten nerabeei. Beste alde batetik, enplegurako sarbidea eta enplegurako sarbiderako trebakuntza dira, dokumentazioarenarekin batera, adin txikiko horiek euren migrazio-prozesuak hastera bultzatzen dituen itxaropen nagusietako bat. Gogoeta hauen 1. puntuan egokitzen jo dugu eguneroko jarduera plan motibatzaile eta erabilgarria egitea. Bada, horri lotuta, formakuntza jarduerak egitea (ahal bada, behar bezala egiaztatuta) izan beharko litzateke jarduera planaren elementu nagusia, eta horren arabera egituratu beharko lirateke denborak, gure iritziz.

Baina, azken aldian, areagotu egin dira zentrotik kanpo burutzen diren formakuntza programetan matrikulatzeko zailtasunak. Vitoria-Gasteizko "Pedro Anitua" Hezkuntza Konpentsatzaile eta Lanbide Heziketarako Partzuergoaren deuseztapena, 2012an gertatu zena, Hastapeneko Lanbide Gaitasuneko Programen desagertzea eta *hezkuntzaren kalitatea hobetzeko abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikotik* (hezkuntza sistema) eratorritako Oinarrizko Lanbide Heziketaren ezarpena, bai eta enplegurako trebakuntza jardueretara sartzeko ondoriozko ezintasuna (enplegu sistema) ere, behar bezala egiaztatutako lanbide heziketa edukitzeko oztopo handiak izaten ari dira, prestakuntza maila dena delakoa izanda ere, eta, horrenbestez, lanean hasteko eta gizarteratzeko baliagarria den prestakuntza edukitzeko oztopo.

Elkarrizketatutako pertsona guztiek adierazi dute neska-mutil horiek parte hartu dezaketena **heziketa alternatiba** horien murrizte progresiboak piztutako kezka, eta bat egiten dugu kezka horrekin. Era berean, berdin baloratu ditugu irtenbideak aurkitzeko garatutako ekimenak. Hala ere, egun arte eskuratu diren emaitza eskasei begiratuta, agerikoa da bestelako aukerak bilatzen jarraitu beharko dela, eta borondateak bildu beharko direla arazoa modu osoagoan jorratzeko.

Gauza jakina da kanpoko zentroetako trebakuntzak eta prozesua egoitza harrerakoak ez diren neska-mutilekin elkarbanatzeak ondorio erantsiak dauzkala sozializazio eremuetan eta komunitatean gizarteratzeko orduan, oso





onuragarriak direnak. Dena dela, goian aipatutako zailtasunak lautzen diren bitartean, interesgarria izan liteke zentroan bertan formazio moduluak antolatzea; eta zenbat eta zerikusi handiagoa izan haiek sar daitezkeen lanbide aukerekin, hobeto. Aurrera egiteko bidea izan liteke, eta ez bakarra, profesionaltasun ziurtagiri jakinen gaitasun unitateei lotutako heziketa moduluen araberrako prestakuntza diseinatzea, egindako moduluaren edo moduluen ziurtagiria, ebaluazioa eta lanbide gaikuntzen egiaztapena etorkizunean aitortzeko moduan, balizko prozesu batean.

#### 4. Neska-mutilak gatazkatik babestea

Dokumentu honen lehenengo gogoetan jorratu dugu lan gatazka izaten ari den eragina; erakunde honen iritziz, bai bidezko esku-hartzean, bai, hortaz, Bideberrian hartutako neska-mutilen beharriaz ematen zaien arretan. Orain adierazi nahiko genuke, gainera, ez daudela gatazkatik babestuta, eta larria iruditzen zaigu hori.

Neska-mutilek ika-mikak ikusten dituzte, eta esplizituki daude agerian zentroan bertan. Datu adierazgarri gisa, hezitzaileen gela lan kontuari buruzko paperez josita dago (enpresa batzordearen komunikazioak, sindikatu sailen komunikazioak, eta, are, slogan aldarrikatzailea duten kartelak ere -"ez gara laguntzaileak, zaintzaileak gara"-).

Are larriagoa iruditzen zaigu komunikabideetara eta komunitatera zabaltzen ari den neska-mutil "gatazkatsuen" irudia. Neska-mutil bereziki oldarkorrak egon daitezkeela ukatu gabe, ehuneko handia osatzen dute nerabe "normalek", helduek beraiekiko agertu dezaketen interesarekiko sentiberak direnak, eta, beraz, heziketa harremana garatu dezaketenak.

Neska-mutilen gatazka maila altua erabiltzen da zentroan gertatzen diren gertakariak azaltzeko, eta gure iritziz, ñabardurekin beti ere, gehiago du ondorioz kausatik baino. Goian adierazi bezala, jakina da langileen talde kohesionatu eta gaituen eta esku-hartzearen kalitate handiagorekin artean lotura dagoela, eta zentroko klima positibo eta lasaiagoan ikusten da hori. Esanenez taldeak gatazkak jorratzeko gaitasun handiagoa duela, bai horien fase hasi berrietan, bai beraiek sortzen dituzten kausak zuzenean deuseztatuz, behin onartu direnean. Heziketa taldea "ahaldunduta" ez dagoenean, ordea, ez dutenean aldi berean erantzuten eta irizpideak antzekoak direnean, neska-mutilek hartzen dute kontrola (saiatu egiten dira, behintzat).

Azken batean, albo batera utzi gabe lan jardueran aritzean atsekabea sentitzeak horren kalitatean eragin dezakeela, batez ere, jarduera horren izaera garbiki harremanezkoa denean, uste dugu beharrezkoa dela erantzukizunari deitzea, bai hezitzaileenari, bai eskudun administrazioenari, neska-mutilak lan eremutik eratorritako gatazketatik babesteko.

Horregatik guztiarengatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak -Ararteko erakunde





sortu eta arautzekoak- 11.b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honakoa da luzatzen den

## GOMENDIOA

- Arreta egokia eman diezaiela hartutako adin txikikoen beharriari, eta emantzipaziorako prestakuntzara eta bizitza autonomora zuzenduta egon dadila arreta hori. Xede horretarako, komenigarria da:
  - Zentroan garatutako programen eta horietako bakoitzaren xedeen identifikazio argia.
  - Zehaztutako metodologia ezartzea, heziketa ildoan batez ere.
  - Eguneroko jardueren programa zehaztea eta garatzea. Bertan, espazio nagusia izan behar du enplegura bideratutako formakuntza jarduerak (zentrotik kanpo zein barruan).
- Gizarte babesgabetasun egoeran dauden haurrentzako eta nerabeentzako harrera egoitza baliabideak arautu dituen uztailaren 8ko 131/2008 Dekretuan behatutako langileen betekizunak betetzen direla berma dadila. Prestakuntzari dagokionean:
  - proposatutako lan-profiletara igarotzea erraztu dadila (hezitzaile laguntzaileak), horiek betetzeko eskatzen den formakuntzarako sarbidea ahalbidetuko duten neurriak hartuta.
  - hezitzaile-taldeari proposatu diezaiola gatazka egoerak jorrazteko gaitasun berri eta hobeak emango dizkien heziketa jarduerak sartzeko etengabeko formakuntza planetan.
- Adi egon dadila eta baliabideetako langileen lan gatazketatik babestu ditzala hartutako neska-mutilak (eta harrera sarea bera), ahal bezainbeste.

